


Helduen Literatura | POESIA

Poeta katalan garaikideak. Antologia
Gerardo Markuleta.
Elkar, 2014



Fer-ne cinc cèntims

ZAILA DA labur azaltzea katalan poesiaren XX. mende oparoak emandakoa. Gerardo Markuletak argazki bat dakar hemen Urrezko Bibliotekara, sakona eta ederra, hitzaurre labur baina baitezpada-ko batekin. Bertan azaltzen du antologoak Literatura Unibertsala bildumako *Poeta katalan garaikideak* (Ibaizabal, 1997) haren bigarren edizioa dela hau, diferentzia batekin; Vicent Andrés Estellésen “Goi-zean goiz heltzen diren kamioiak” poema bi balira bezala argitaratu ziren orduko hartan.

Poetak kanonari jarraituz ei daude hautatuak: Josep Carner, Carles Riba, J.V. Foix, Joan Salvat-Papasseit, Pere Quart, Salvador Espriu, Joan Vinyoli, Gabriel Ferrater eta Vicente Andrés Estellés. Bederatzi horietatik sei –Vinyoli, Ferrater eta Estellés izan ezik– José Batllóren *Seis poetas catalanes* antologian daude, 1969ko erreferentzia garrantzitsua.

Argitalpenak biziberritu egiten du beraz poesia antz eta bikain hori, katalanez egina, XIX. mendean berdetu zena eta liburuan errepasatzen den XX. mendean loratu. Poeta hauek edaten dute korrante zabal batetik, modernismoak eta novecentismoak gidatutako Europako literatura handienetariko baten oinordekoak dira. Abangoardiak aberastu eta zelan-bait berriro formulatu zuen lehen loraldiaren oinordekoak ere hemen daude irakurgai, Joan Salvat-

Papasseitek erreibindikatu zuen biharamuna ageri baita liburuan. “Izan zaitezte poetak: harroak, ausartak, heroikoak eta, batez ere, egitiak”.

Antzeko zer edo zer gertatu zaio Markuletari ere. Bere lanaren garrantziaz ohartua da itzultzaile fina, baina ez dio gozatzeari utzi nahi, ikasteari utzi nahi, egiti izateari utzi nahi. Horrela bada, poeten hautaketan kanonari kasu egin arren, poemei eurei itzulpen aske eta sentimentalaren finezia eman die, soiltasun eder hori, olerkari denak bakarrik jarri dezakeena, ez galtzeko jatorrizkoaren musika eta pultsua. Markuletak berak dio zenbait poeta katalan apailatzerakoan bere irizpideak ez zirela zurrun-zurrunik izan: “Ez nintzen unibertsitate irakaslea ez eta kritikari akademikoa, poeta eta itzultzailea baizik. Hitz bitan esateko, nik poema bilduma bat egin nahi nuen, ez poeta bilduma”. Pere Quartek laburbiltzen du antologiaren asmoa, XX. mendeko katalan poetena ere badena, lirikoa bezain nazionala, altua bezain lurtarra, letrekiko maitasun handiarena: “Ilara luzerik ez, mesedez:/ kasurik onenean,/ ni hiltzean,/ zuek, guzti-guztiok,/ onak zein gaiztoak, /ni hil ondolan bizirik iraundakoak izango zarete beste barik”. ■

Igor Estankona



Udarako Zientziatxokoak EUREKAN!

■ 3 - 10 urte ■ Jangela zerbitzua
■ 8:30 - 15:30 ■ 11 txanda



www.eurekamuseoa.es | 943 012 478

